

Bilbon, mila ta bederatzireun eta berrogetabederatzigarren urteko Bagilaren ogeitabostean, Bizkaiko Ekauta-jauregiko Jakintza-Batzordearen jai-gelan, Azkue jauna maipuru dala ta Zamarripa, Krutwig eta Oleaga Euskaltzainak, eta Joane Migel Seminario de Rojas Euskaltzaingea bertan dirala, egiten da gaurko egunerako deitutako batzarra.

Asiera, araudizko otoitzaz emoten dako.

Gero lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Krutwig jaunak dino bere eritziz Euskaltzaindia zelabaiten barriztu bear litakela, orain dagoan ta dabilen lez jarraitu ezkeru, euskerearentzat onura gitxi datorrelata. Onezaz adierazoten dauz zertzelada batzuk. Aintzakotzat artu da Krutwig 7en asmo ori ta urrango batzaferako gai onezaz txosten bat ekarri dagiala erabagi da.

Urrango jakin erazoten da Bizkaiko Ekautaren Jakintza-Batzordeak dinoala, Euskaltzaindian bere aurkeztaritzat izentauriko Irigoien jaunak kisa ori utzi dabela ta auferantzean Batzorde atan Euskaltzaindiaren aurkeztaria artzeko gertu dagoala. Barri oneek jakinik, Seminario de Rojas euskaltzain barria, aitaturiko Batzordean Euskaltzaindiaren aurkezpena eroan dagian izentau da.

Ipar-Amerikako Idahon ta beste Amerikako errialde batzuetan euskaldun berein dagozala-ta, eurokin zelabaiten alkartutea egoki izango litzakela-ta, Krutwig ta Seminario de Rojas Euskaltzainen lepora utzi da asmo ori zelan bete leiteken ikustea ta erakustea.

Eta araudizko otoitzaz batzarrari amaieran emon ondoren, ospatzen da andiki-ro Joane Migel Seminario de Rojas Euskaltzain barriaren arrerea.

Gelako atea zabaldurik, agertzen dira jai onetara deitutariko ainbat lagun, emen artean Bizkaiko Jaurlaria, Bizkaiko Ekauta-Buruak, Bilboko Endorea ta beste agintari ta andiki batzuk dirala.

Araudiak agintzen dabenez, Zadorlariak azaltzen dau batzarraren egikizuna, ta adierazoten dau euren poz-agiria nortzuk bidaldu daben. Onexek dira: Irigarai, Etxaide ta Etxegarai euskaltzainak, Naparroako Ekauta-Buruak, Berako Endoreak, Bilboko Irakastegi-Prantsesako Nagosiak, Inglaterako ordezkariak eta beste batzuk.

Seminario de Rojas jaunak "Itz-barri sortea izkuntzetan eta batezbere euske-rean" gaitzat artu-ta, itzaldi eder eta sakona irakurri eban.

Krutwig jaunak gai orrezaz ekinik, erantzun-itzaldi txalogarria irakurri eban.

Txalo ugari ta sutsuak egin ebezan entzuleak itzaldiok amaitu ziranean.

Urrengo Azkue Euskaltzainburuak, Seminario jaunari bere euskaltzaintzearen ezaugarriak emonik, Euskaltzaintzat artu eban, Euskaltzainkideak, Agintariak eta aurreko ozte guztiak besarkadak, eskutinkak eta zorionak emoten eutzezala.

Onelan emon dako amaiera batzarrari.

Euskaltzainburua,
Resurreccion M.^a Azkue

Zadorlaria,
Nazario Oleaga